



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA  
2019/01/31

## **Ogasun eta Finantza Foru Diputatuak mezenasgoari eta irabazi asmorik bako erakundeei emongo jaken zerga tratamendu barriaren proiektua aurkeztu dau**

Jose M<sup>a</sup> Iruarrizaga Ogasun eta Finantza Foru Diputatua Bizkaiko Batzar Nagusietako jagokon batzordearen aurrera etorri da gaur, irabazi asmorik bako Erakundeen Zerga Araubidearen eta Mezenasgoaren Zerga Pizgarrien Foru Arau Proiektuak aurkezteko, alde batetik, eta Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko Sailaren tasak arautzearen ganeko azalpenak emoteko, bestetik. Eneritz de Madariaga Podemos Bizkaia taldeko bozeroaleak eta Arantza Urkaregi EH Bildukoak eskatu dabe Foru Ogasuneko arduradunaren presentzia, proiektu bien eukiaren barri emoteko.

Mezenasgoaren eta irabazi asmorik bako Erakundeen zerga tratamendu barriari jagokonez, Iruarrizagak azaldu dauenez, bere Sailaren helburuak arautegia ikuspegi teknikitik barriztatea, zerga araudia azkenengo urteetan onetsi diran arau barrietara egokitzea, arlo horretako Europako ordenamentura egokitzea, figura bi horreetarako aurreikusten diran zerga pizgarriak eguneratzea eta genero ikuspegia lege testu barriari integretea izan dira. Bizkaiko Foru Ogasuneko arduradunaren eretxiz, Mezenasgoa eta irabazi asmorik bako Erakundeak zerga pizgarrien bitartez sustatzea guztiz justifikauta dago, “hainbat administrazinok parte hartzen daben arloakaz bat datozan jardueratan lankidetza publiko-pribadua dalako”.

Mezenasgoari jagokonez, Foru Diputatuak azpimarratu dau Foru Arauak, babes modalitate horretara zuzendutako pizgarrien onurak eskuratu ahal izatea bilatzen dauela, aldi berean hainbat arlotako finantzaketa pribadua sustatuz: kulturea, euskerea, kirola, gazteria, ondarea, gizarteratzea, garapenerako lankidetzea, bardintasuna eta kultur aniztasuna, gizarte arloko hirugarren sektorea eta zahartzea.

Esku-hartzeko txandatan, Eneritz De Madariagak bultzatu beharreko lehentasunezko jardueren erespideen erregulazioaren ganeko interesa agertu dau, eta Foru Arau proiektuak arautzen dituan figura bien –irabazi asmorik bako erakundeak eta Mezenasgoa– helburu desbardinaren ganean jarri dau arreteak. Arantza Urkaregik, bere aldetik, lehentasunezko jarduerak definitzen dituen erespideen aurreko interesa agertu dau, horreen artean 2020ko Futbol Eurokopea ez sartzearen inguruko galderea egin dau –horren egoitzetako bat Bilbon egongo da–, eta arautegi barriari genero erespideak lantzeko aukerea nabarmendu dau.

Batzarretako ganerako taldeen aldetik, Arturo Aldecoa (Taldea Mistoa) erlijinoko erakundeen edo alderdi politikoen esku dagozan fundazioen kontsiderazio desbardinarengaitik galdetu dau, eta Jane Eyre Urquietak (Euzko Abertzaleak), bere eretxiz gizartearentzat beharrezkoak diran jarduera batzuen legezko erregulazioa jarri dau balioan. Eduardo Andrés (Taldea



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Popularra) eta Ekain Rico (Euskal Sozialistak), Foru Diputatuak emondako azalpenak eskertzeraz mugatu dira.

Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko Sailaren tasen erregulazioa

Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko Sailaren tasak arautzen dituan Foru Arau Proiektuari jagokonez, José María Iruarrizagak esan dau horreen helburua, zerga horrek guztiak arauzko xedapen bakarrean sistematizatea, erregulazioan argitasuna eta segurtasun juridikoa handitzea eta zenbatekoak eguneratzea dala, genero ikuspegia sartzeko. Dana dala, Foru Diputatuak esan dauenez, Foru Arauaren eukia "jarraitzailea" da, eta baso arloko zerbitzuen prestazioaren ganeko tasa bat baino ez zala aurreko arautegian jasoten argitu dau.

Argitu dauenez, tasa horreek ezarteko erespideak (zerbitzu agronomikoen kudeaketa tekniko-fakultatiboarengaitik; abereen osasunaren, ongizatearen eta erregistroaren arloan zerbitzuak eskaintzearengaitik; ehizatzeo lizentzien eta matrikulengaitik eta ehizako arteen prezintuarengaitik; Bizkaiko Foru Aldundiaren esku dagozan kokatutako gunetan ehizatzeo eta arrantzan egiteko baimenak emoteagaitik; kontinenteko arrantzarako lizentzia eta ontzietarako matrikulak emoteagaitik; eta baso arloko zerbitzuak eskaintzearengaitik) Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko Sailaren eskumenak dira.

Eneritz De Madariagak, agerraldia eskatu daben talde bietako lehenengoa (Podemos Bizkaia) ordeztuz, bere zalantzak agertu ditu tasa horreen zenbatekoa ezarteko erespideen ganean, ehizako lizentziei jagokonez, batez be. Eta Arantza Urkaregi EH Bilduko bozeroaleak, genero ikuspegia kontuan hartu beharra azpimarratu dau, eta basoko tasei eta baso-jaubeen sektoreari jagokonez, diru-laguntzen eta hondamendi egoeren aurreko beste laguntza batzuen artean egon daiteken bateragarritasunaren ganeko interesa erakutsi dau.

Talde Mistoaren aldetik, Arturo Aldecoak testua idazteko orduan egin diran akats txiki batzuk aitatu ditu, eta Jon Andoni Atutxa Batzordeko Presidenteak, horreek zuzentzeaz Batzar Nagusietako Zerbitzu Teknikoak arduratuko dirala erantzun deutso. Eduardo Andrések (Taldea Popularra) esan dauenez, tasen zenbatekoaren ganeko edozein zuzenketa-eske Iraunkortasuneko Sailera bideratuko da, halan danean. Ekain Rico (Euskal Sozialistak), lege testu barria horreek argitzera datorrela esan dau, eta Ainara Aretxabaletak (Euzko Abertzaleak) be antzekoa esan dau, Foru Arau proiektuak "tasa moltso hori eguneratu eta egokitu egiten dauela" zehaztuz.

BBK Fundazioaren Patronatua

Gaur goizean egin dan Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean, BBK Fundazioaren Patronatuaren barrizapenaren ganeko informazioa emoteko EH Bildu taldeak egin dauen erantzun-eskeari be erantzun deutso Iruarrizagak. Arantza Urkaregik, erakunde horren osaketa barriaren ganean Bizkaiko Foru Aldundiak dituan asmoen eta aurreikuspenen ganeko interesa agertu dau. Eta Bizkaiko Batzar Nagusietan ordezkariak daukien talde politiko guztien artean ahalik eta adostasun handiena proponidu dau, foru erakundeak Patronatu horretan eukiko dituan ordezkariak izendatzeko.

Bere esku hartzearen hasieran, José María Iruarrizagak "oraindino ez dala erabagi hori hartzeko unea" esan dau, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontsejuak bere unean berak



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

erabagiten dituan izendapenak egingo dituala, Legeagaz eta BBK Fundazioaren estatutuakaz bat etorrira, kontuan izanda arategiak beren beregi debekatzen dauela erakunde horren ganeko tutoretza publikoa egoterik. Esan dau, baita be, berak dakienez ez dala Patronatuaren berregituraketarik egongo, baina bai hainbat urtetarako Plan Estrategiko barria, denpora gitxi barru.

Batzarretako taldeen txandan, Arturo Aldecoak (Talde Mistoa) bere zalantzak erakutsi ditu “zeharkako gizarte lana” terminoaren aurrean. EH Bilduko ordezkariak Fundazioaren jarduteko ildo barri posible moduan aitatu dau, eta Iruarrizagak holangorik ez dauela ezagutzen adierazo dau. Eduardo Andrések (Talde Popularra), Arantza Urkaregik (EH Bildu) Foru diputatuari egindako erantzun-eskearen oinarri faltea kritikau dau. Eneritz De Madariagak (Podemos Bizkaia) esan dau Gizarte Ekonomia ezagutzea eta horregaz loturea izatea erespide gehigarria izan beharko litzatekela foru erakundea Patronatua ordeztuko daben personak aukeratzeko orduan. Ekain Ricok (Euskal Sozialistak) arauak bete behar dirala esan dau, horreek izendapenen egokitasuna bermatuko dabelako. Eta Jesús Lekerikabeaskoak (Euzko Abertzaleak) azpimarratu dau BBK Fundazioa irabazi asmorik bako erakunde pribadua dala, eta, hori dala eta, Patronatua osatzeko izendapenak eta bertako gizarte lanak aurrera eroan behar dauen jarduereta, legediak eta estatutuek ezarten eta mugatzen dituela.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
31/01/2019

## **El Diputado Foral de Hacienda y Finanzas presenta ante las Juntas Generales de Bizkaia el proyecto de nuevo tratamiento fiscal al mecenazgo y a entidades sin fines lucrativos**

José María Iruarrizaga, Diputado Foral de Hacienda y Finanzas, ha comparecido esta mañana ante la Comisión correspondiente de las Juntas Generales de Bizkaia para presentar dos proyectos de Norma Foral, relativos al Régimen Fiscal de las Entidades sin fines lucrativos y de los Incentivos Fiscales al Mecenazgo, por un lado, y sobre regulación de las tasas del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural, por otro. Las portavoces de Podemos Bizkaia, Eneritz de Madariaga, y de EH Bildu, Arantza Urkaregi, habían solicitado la presencia del responsable de la Hacienda Foral para dar cuenta del contenido de ambos proyectos.

Respecto al nuevo tratamiento fiscal del mecenazgo y las entidades sin ánimo de lucro, Iruarrizaga ha explicado que los objetivos de su Departamento han sido reformar técnicamente la normativa, adecuar el régimen fiscal a las nuevas normas aprobadas en los últimos años, adaptarlo al ordenamiento europeo en esta materia, actualizar los incentivos fiscales que se contemplan para estas dos figuras e integrar la perspectiva de género en el nuevo texto legal. En opinión del responsable de la Hacienda Foral de Bizkaia, la promoción del mecenazgo y de las actividades sin ánimo de lucro a través de incentivos fiscales está plenamente justificada “porque se trata de una colaboración público-privada en actividades que coinciden con áreas en las que intervienen las diferentes administraciones”.

Respecto al mecenazgo, el Diputado Foral ha subrayado que la Norma Foral pretende que los contribuyentes de Bizkaia puedan beneficiarse de los incentivos destinados a esta modalidad de patrocinio, promoviendo a su vez la financiación privada de actividades en los ámbitos de la cultura, el euskera, el deporte, la juventud, el patrimonio, la inclusión social, la cooperación al desarrollo, igualdad y diversidad cultural, el tercer sector social y el envejecimiento.

En sus turnos de intervención, Eneritz De Madariaga se ha interesado por la regulación de los criterios sobre actividades prioritarias a favorecer, y ha llamado la atención sobre la distinta finalidad de las dos figuras –entidades sin ánimo de lucro y mecenazgo- que regula el proyecto de Norma Foral. Por su parte, Arantza Urkaregi se ha interesado igualmente por los criterios que definen las actividades prioritarias, ha preguntado por la no inclusión entre ellas de la Eurocopa de Fútbol del año 2020 -que tendrá una de sus sedes en Bilbao-, y ha incidido en la oportunidad de abordar criterios de género en la nueva normativa.

Por parte del resto de los grupos junteros, Arturo Aldecoa (Grupo Mixto) se ha interesado por la distinta consideración de las fundaciones dependientes de entidades religiosas o de partidos políticos, y Jane Eyre Urquieta (Nacionalistas Vascos) ha puesto en valor la regulación legal de unas actividades que ha calificado de imprescindibles para la sociedad. Eduardo Andrés (Grupo Popular) y Ekain Rico (Socialistas Vascos), se han limitado a agradecer las explicaciones ofrecidas por el Diputado Foral.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Regulación de tasas del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural

En cuanto al Proyecto de Norma Foral por la que se regulan las tasas del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia, José María Iruarrizaga ha señalado que sus objetivos son, por un lado, sistematizar todos estos tributos en una única disposición normativa, incrementar la claridad y la seguridad jurídicas en su regulación y actualizar las cuantías para integrar la perspectiva de género. En todo caso, el Diputado Foral ha calificado de “continuista” el contenido de la Norma Foral, y ha explicitado que tan solo una tasa sobre prestación de servicios en materia forestal no se encontraba recogida en la normativa anterior.

Ha aclarado asimismo que los criterios para la fijación de estas tasas (por gestión técnico-facultativa de servicios agronómicos; por prestación de servicios del ámbito de sanidad, bienestar y registro ganadero; por licencias y matrículas para cazar y precinto de artes de caza; por permiso de caza y pesca en zonas acotadas dependientes de la Diputación Foral de Bizkaia; por expedición de licencia de pesca continental y matrículas de embarcaciones; y por prestación de servicios en materia forestal) son competencia del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural.

Eneritz De Madariaga, en representación del primero de los dos grupos junteros en solicitar la comparecencia (Podemos Bizkaia), ha expresado sus dudas en cuanto a los criterios de establecimiento de la cuantía de las diferentes tasas, en especial en lo referente a licencias de caza. Y Arantza Urkaregi, portavoz de EH Bildu, ha incidido en la consideración de la perspectiva de género, y se ha interesado especialmente por las tasas forestales, y sobre la compatibilidad para el sector forestalista entre subvenciones y ayudas como consecuencia de situaciones catastróficas.

Por parte del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa ha llamado la atención sobre pequeños errores en la redacción del texto, a lo que el Presidente de la Comisión, Jon Andoni Atutxa, ha respondido que serán los Servicios Técnicos de las Juntas Generales quienes se encarguen de subsanarlos. Eduardo Andrés (Grupo Popular) ha manifestado que cualquier posible enmienda en torno a la cuantía de las tasas se remitirá en su caso al Departamento de Sostenibilidad. Ekain Rico (Socialistas Vascos) ha valorado que el nuevo texto legal ayuda a clarificarlas y Ainara Aretxabaleta (Nacionalistas Vascos) ha incidido en el mismo argumento, precisando que el proyecto de Norma Foral “actualiza y adapta este conjunto de tasas”.

Patronato de la Fundación BBK

En el transcurso de la Comisión de Economía y Hacienda de las Juntas Generales de Bizkaia celebrada esta mañana, Iruarrizaga ha respondido también a una pregunta del grupo juntero de EH Bildu en torno a la renovación del Patronato de la Fundación BBK. Arantza Urkaregi se había interesado por las intenciones y previsiones de la Diputación Foral de Bizkaia en cuanto a la nueva composición de este órgano. Y ha propuesto el mayor consenso posible entre todos los grupos políticos representados en las Juntas Generales de Bizkaia para la designación de los representantes del ente foral en dicho Patronato.

José María Iruarrizaga ha iniciado su intervención aseverando que “aún no toca tomar esa decisión”, y ha asegurado que el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia designará en su momento a quien estime conveniente con arreglo a la Ley y a los estatutos de la Fundación BBK, teniendo en cuenta que la normativa impide expresamente que pueda existir tutela pública sobre este organismo. También ha declarado que no tiene constancia de una



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

posible reestructuración del Patronato, pero sí de la inminencia de un nuevo Plan Estratégico plurianual.

En el turno de los grupos junteros, Arturo Aldecoa (Grupo Mixto) ha mostrado sus reticencias hacia el término “obra social indirecta”, mencionado como posible nueva línea de actuación de la Fundación por la representante de EH Bildu y que Iruarrizaga ha asegurado desconocer. Eduardo Andrés (Grupo Popular) ha criticado la falta de base de la pregunta formulada por Arantza Urkaregi (EH Bildu) al Diputado Foral. Eneritz De Madariaga (Podemos Bizkaia) ha sugerido que el conocimiento y la vinculación con la Economía Social sea un criterio añadido a la hora de seleccionar a las personas que representen al ente foral en el Patronato. Ekain Rico (Socialistas Vascos) ha abogado por cumplir las normas porque éstas asegurarán la idoneidad de las designaciones. Y Jesús Lekerikabeaskoa (Nacionalistas Vascos) ha insistido en que la Fundación BBK es un organismo de carácter privado sin ánimo de lucro y que tanto las designaciones para integrar su Patronato como la actividad de su obra social están establecidas y acotadas por la legislación y por su estatuto.